

# CAF-Elhuyar sariak 2021

## Oinarriak

### I.- Sarietaren xedea

CAF-Elhuyar sariaren helburuak dira zientzia eta teknologiaren arloko gaien eta ikerketen euskarazko dibulgazioa, kazetaritza, eta gizarteratzea bultzatzea, saritzea eta aitortzea.

Elhuyarrek antolatzen ditu CAF-Elhuyar sariak, CAF enpresarekin batera, NEIKER-Tecnaliaren babesarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren diru-laguntzaz.

### II.- Kategoriak eta sariak

Hiru kategoria hauek osatzen dute sariak: dibulgazio-artikuluak, kazetaritza-lanak eta sorkuntza-beka.

- **Dibulgazio-artikulu originalak.** Kategoria honetan, euskaraz sortutako zientzia eta teknologiaren dibulgazio-lanak aurkeztuko dira. Bi azpikategoriatan banatuta dago:
  - **Dibulgazio-artikulu orokorrak**  
Saria: 2.000 euro, Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura bat eta urtebeteko harpidetza *Elhuyar* aldizkarira.
  - **Egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak**  
Saria: 2.000 euro, Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura bat eta urtebeteko harpidetza *Elhuyar* aldizkarira.
- **Zientzia-kazetaritzaren arloko lanak.** Kategoria honetan, 2020an euskaraz sortu eta argitaratutako kazetaritza-lanak aurkeztuko dira, edozein formatu eta generotakoak.  
Saria: 2.000 euro, Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura bat eta urtebeteko harpidetza *Elhuyar* aldizkarira.
- **Zientzia gizartean sorkuntza-beka.** Kategoria honetan, gai zientifiko-teknologikoak gizarteratzeko beste modu batzuk lantzen dituzten proiektuak aurkeztuko dira, euskaraz sortuak. Arlo zientifiko-teknologikoa eta gizartea harremanetan jartzea izango da haien muina.  
Saria: 5.000 euro eta Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura bat.

Horrez gain, **NEIKER sari berezia** dago. Lehen bi kategoriatako lanen artean (dibulgazio artikuluak eta kazetaritzakoak) lehen-sektorearekin lotura duen lan onenari emango zaio sari hori. Beste sariekin bateragarria izango da; alegia, lehen sektoreko lan onenak beste kategoria bateko onena ere baden kasuan bi sariak jasoko ditu. Saria: 2.000 euro, Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura bat eta urtebeteko harpidetza *Elhuyar* aldizkarira.

### III.- Dibulgazio-artikuluak

- Kategoria honetara euskaraz sortutako zientzia eta teknologiaren dibulgazio-artikuluak aurkeztuko dira.
- Aurkeztuko diren lanek originalak eta sekula argitaratu gabeak izan behar dute; itzulpen edo moldaketarik ez da onartuko. Beste sariren bat jaso duten lanak ere ez dira onetsiko.
- Bi eratako dibulgazio-artikuluak aurkeztu ahal izango dira: (i) zientzia- eta teknologia-gai bati buruzko dibulgazio-artikulu orokorrak, batetik, eta (ii) sariketara aurkeztu den egilearen doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluak, bestetik.
- Doktore-tesietan oinarritutako artikuluen kategorian, zientzia eta teknologiaren arloko doktore-tesiei buruzko dibulgazio-artikuluak bakarrik onartuko dira, eta 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean aurkeztutako tesiak bakarrik hartuko dira kontuan. Dibulgazio-artikuluak argi erakutsi behar du zein izan diren tesiaren ardatza eta egilearen ikerketa-lana.
- Artikuluek, gehienez, 10.000 karaktere izango dituzte, hutsuneak zenbatuta. Muga horretatik kanpo daudenak ez dira kontuan hartuko. Dagozkien irudi eta grafikoez hornituko dira. Horiek argitaratzeko baimena edo lizentzia izan behar dute, eta jabetza aitortu beharko da (artikuluaren egilearenak direnean, halaxe aitortuko da, beti ere, egilearen izena jarri gabe). Irudiei eta grafikoei, eta haien argazki-oiniei dagozkien espazioa ez da erabiliko lanen luzera neurtzeko. Bibliografia ere aipatu egin behar da; bibliografiari dagozkion espazioa ere ez da erabiliko lanen luzera neurtzeko.

- **Artikulu saridunak**

Elhuyarrek konpromisoa hartzen du saria jaso duten dibulgazio-artikuluak argitaratzeko, eta egileei ez dagokie horregatik inolako kontraprestaziorik. Elhuyarrek bereganatzen ditu artikuluen saridunen ustiatze-eskubide guztiak (erreproduzitzeko, banatzeko, gizarteratzeko eta transformatzeko eskubideak barne); beraz, nahi duen bide, euskarri eta formatuan argitaratu ahal izango ditu nahi beste aldiz. Elhuyarrek, besteak beste, *Elhuyar* aldizkarian eta [www.elhuyar.eus](http://www.elhuyar.eus), [aldizkaria.elhuyar.eus](http://aldizkaria.elhuyar.eus), eta [www.zientzia.eus](http://www.zientzia.eus) webguneetan argitaratu ahal izango ditu artikuluen saridunak.

- **Saritu gabeko artikuluak**

Elhuyarrek nahi duen bide, euskarri eta formatuan argitaratu eta hedatu ahal izango ditu sariketara aurkeztu diren eta saririk jaso ez duten dibulgazio-artikuluak, eta egileei ez dagokie horregatik inolako kontraprestaziorik. Elhuyarrek, besteak beste, *Elhuyar* aldizkarian eta [www.elhuyar.eus](http://www.elhuyar.eus), [aldizkaria.elhuyar.eus](http://aldizkaria.elhuyar.eus), eta [www.zientzia.eus](http://www.zientzia.eus) webguneetan argitaratu ahal izango ditu sariketara aurkeztu diren eta saririk jaso ez duten artikuluak. Hala ere, Elhuyarrek lan horiek argitaratzeko eta hedatzeko eskubidea besterik ez du bereganatuko, eta egileei dagozkien artikuluen gaineko ustiatze-eskubide guztiak.

#### IV.- Zientzia-kazetaritzaren arloko lanak

- Kategoria honetan, zientzia- eta teknologia-gaiak hizpide dituzten euskarazko kazetaritza-lanak aurkeztuko dira.
- Formatu eta genero guztietako lanak aurkeztu ahal izango dira: egunkarietan argitaratutako erreportajeak, telebistan emititutakoak, Interneten argitaratutako lanak, irradi-emankizunak...
- Lanek 2020ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean argitaratutakoak izan behar dute.
- Lanak autoreak, autore-taldeak nahiz komunikabideak aurkez ditzake. Alabaina, saria autorearentzat edo autoreentzat izango da kasu guztietan.
- Autore bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere.
- Ezingo dira proiektu osoak aurkeztu, kazetaritza-lan zehatzak baizik.
- Egokia baderitzo, epaimahaiak aukera izango du epe horretan argitaratu den kazetaritza-lan bat saritzeko, baita sariketara aurkeztu ez bada ere. Nolanahi ere, egileei eta komunikabideei dei egiten zaie lanak aurkez ditzaten sariketara.
- Kazetaritza-lana aurkezten duenak ez dio lanaren ustiatze-eskubiderik emango Elhuyarri, baina Elhuyarrek aukera izango du saria jaso duen kazetaritza-lanaren aipamen labur bat egiteko Elhuyarrek egoki deritzon komunikabideetan. Aipamen hori, besteak beste, *Elhuyar* aldizkarian eta [www.elhuyar.eus](http://www.elhuyar.eus), [aldizkaria.elhuyar.eus](http://aldizkaria.elhuyar.eus), eta [www.zientzia.eus](http://www.zientzia.eus) webguneetan argitaratu ahal izango du Elhuyarrek.

#### V.- Zientzia gizartean sorkuntza-beka

- Kategoria honetan, gai zientifiko-teknologikoak gizarteratzeko beste modu batzuk lantzen dituzten proiektuak aurkeztuko dira, euskaraz sortuak. Arlo zientifiko-teknologikoa eta gizartea harremanetan jartzea izango da haien muina.
- Proiektuak originalak eta euskaraz sortuak izango dira, aurrez jendaurrean aurkeztu gabeak eta saritu gabeak.
- Edozein diziplina artistiko, soziologiko edo zientifikotako proposamenak aurkeztu ahal izango dira sariketara: ikus-entzunezkoak, dantza edo musika ardatz dutenak, esperimentu artistiko-sozialak, argazkilaritzakoak, arkitektonikoak...Beti ere, arlo zientifiko-teknologikoa eta gizartea harremanetan jartzeko xedearekin.
- Eremu zientifiko-teknologikoa zentzu zabalean interpretatuko du autoreak edo autore-taldeak. Hauek izan daitezke proiektuaren ardatz: kontzeptu zientifikoak, ikerketa, garapen teknologikoak, gertaera historikoak, etorkizunaren irudikapenak, arriskuak, erronkak, aurreiritziak, kezka sozialak, zalantza etikoak...
- Proiektuak bakarka edo taldean aurkeztu ahal izango dira.
- Proiektuak [cafelhuyarsariak.elhuyar.eus](http://cafelhuyarsariak.elhuyar.eus) webguneko aplikazioaren bitartez aurkeztuko dira, eta atal hauek izango ditu:
  - Txosten bat gauzatu nahi den proiektuaren deskribapenarekin (gehienez 10.000 karaktere / 5 orri). Txostenean alderdi hauek jasoko dira: helburuak, motibazioa, ezaugarriak, lan-plana (garapena, epeak eta iraupena), proiektua gauzatzeak eskatuko lituzkeen baliabideen zerrenda, baliabideen erosketa edo alokairuak (dagokionean), formatua eta azken emaitzaren ezaugarriak.
  - Egilearen edo egile-taldearen aurkezpen laburra.
- Ez da onartuko aipatutako irizpideak betetzen ez dituen lanik.
- Saritua izateko, ez da beharrezkoa lagin bat aurkeztea; nahikoa da proposamena aurkeztea. Diru-laguntza, berriz, zatika emango da, proiektua garatu ahala, beharren arabera. Saria jasotzen duen pertsonak edo taldeak bere burua behartzen du saritutako proiektua garatzera eta azken emaitza lortzera. Irabazleak bederatzi hilabeteko epea izango du gehienez, saridun izendatua izan ondoren, proiektua gauzatzeko. Egileak edo egile-taldeak bere lana amaitzen ez badu, edo emaitzaren izaera eta kalitatea, epaimahaikoen iritziz, proiektuan azaldutakoaren aldean nabarmen kaskarragoak badira, egileak itzuli egin beharko du jasotako dirua.
- Saridunak konpromisoa hartzen du proiektuaren gizarteratzean parte hartzeko.

- Elhuyarrek eskubidea izango du saridun gertatzen den proiektuaren emaitza hedatzeko.
- Bekaren diru-ekarpenaz landa, CAFek eta Elhuyarrek ez dute beren gain hartuko proiektua gauzatzeko behar diren baliabideen kosturik.
- Proiektuaren zein azken emaitzaren jabea egilea edo egileak izango dira, eta harenak edo haienak izango dira baita ustiapen- eta hedapen-eskubideak.
- Lanaren emaitzan argi azaldu behar da bekaren laguntzarekin gauzatu dela, esaldi honen bidez: "Lan hau 2021eko CAF-Elhuyar Zientzia gizartean sorkuntza-bekaren laguntzarekin egin da".

## VI.- Lanak/Proiektuak aurkeztea

- Lanak edo proiektuak aurkezteko azken eguna 2021ko otsailaren 12a izango da.
- Lanak edo proiektuak [cafelhuyarsariak.elhuyar.eus](http://cafelhuyarsariak.elhuyar.eus) webguneko formularioaren bitartez aurkeztuko dira.
- Ez da onartuko CAF-Elhuyar sarien aurreko bi edizioetan edo gehiagotan jarraian saridun izan diren egileen lanik.
- Formularioan, lana edo proiektuaren txostena eta egile(ar)en datuak eskatzen dira: egile(ar)en izen-deiturak, helbidea, herria, posta-kodea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa.
- Formulario bidez jasotako datu pertsonalak eta lanak erabateko zuhertasun eta konfidentziasunez erabiliko ditu Elhuyarrek. Modu anonimoan helaraziko dizkie lanak Elhuyarrek epaimahaikideei; beraz, lanen balorazioa egitean epaihamahakideek ez dute lan bakoitzaren egileen berri izango.
- Autorearen doktore-tesian oinarritutako lanetan, aurrekoaz gainera, formularioan beste datu hauek eskatzen dira: zein sailetan eta unibertsitatetan egin den tesia. Horrekin batera, doktore-titulua edo tesia gainditu izanaren frogagiriaren kopia.
- Zientzia-kazetaritzaren arloko lanen kategorian, datu pertsonalez gain, argitalpenaren kopia bat eskatzen da prentsa idatzian argitaratutako lanen kasuan. Irrati edo telebistako emanaldien kasuan, berriz, dagokien enpresak emandako emisio-ziurtagiria. Interneten argitaratutako lanen kasuan, webgunearen helbidea adierazi behar da, eta kudeatzaileak emandako argitalpen-ziurtagiria.

## VII.- Epaimahaia

- Epaimahaia zientzia eta teknologiako zein artearen munduko eta kazetaritzako adituek osatuko dute, eta Elhuyarrek izendatuko du. Hauek izango dira CAF-Elhuyar 2020ko epaimahaia:
  - Dibulgazio-artikuluen eta kazetaritza-lanen epaimahaia: Arturo Elosegi Iruña, ekologoa eta EHUko ikertzailea; Marian Iriarte Ormazabal, kimikaria eta EHUko ikertzailea; Alberto Barandiaran Amillano, kazetaria eta idazlea; eta Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute, *Elhuyar* aldizkariko zuzendaria.
  - Zientzia Gizartean sorkuntza-bekaren epaimahaia: Lorea Agirre Dorronsoro, Jakin Fundazioko zuzendaria; Koldo Almandoz de La Cruz, zinema-zuzendaria; Josu Rekalde Izagirre, EHUko Artea eta Teknologiako katedraduna; eta Irune Bengoetxea Lanberri Elhuyarreko komunikazio-arduraduna.
  - NEIKER sari bereziaren epaimahaia: Arantza Madariaga Aberasturi, Erika Fundazioko zuzendaria; Pilar Santamaría Martínez, HAZI Fundazioko arloko burua; eta Rikardo Bueno Zabalo BRTAko zuzendaria
- Epaimahaikoen erabakia sariak banatzeko ekitaldian jakinaraziko da jendaurrean. Hala ere, antolatzaileek aurretik izango dute erabakiaren berri, eta parte-hartzaileei ere esango zaie, ekitaldiaren egunera arte isilpean gordetzeko konpromisoarekin.

- Epaimahaiak honako irizpide hauek izango ditu kontuan sariak emateko:
  - Dibulgazio-artikuluaren kalitatea, zuzentasuna, erakargarritasuna eta originaltasuna; hizkuntzaren egokitasuna; irudi eta grafikoaren kalitatea eta aberastasuna.
  - Kazetaritza-lanaren kalitatea eta erakargarritasuna, kontakizunaren aberastasuna (irudiak eta grafikoak, elkarrizketak, deskribapenak, musika eta soinuak, lokalizazioak...); informazioaren egokitasuna; iturrien aipamena eta aberastasuna; hizkuntzaren zuzentasuna. Gaurkotasanari erantzuteko ahalegina ere baloratuko du epaimahaiak.
  - Sorkuntza-bekaren kasuan, aurkeztutako egitasmoaren originaltasuna eta erakargarritasuna; arlo zientifiko-teknologikoaren eta gizartearen arteko elkarrekintzaren sakontasuna; izaera esperimentalak; egingarritasuna; interes soziala; diziplinartekotasuna; aurkeztutako proiektuaren zehaztapen- eta garapen-maila. Taldean aurkeztutako lanak eta bestelako finantziazio-iturrietan sarbiderik ez duten proposamenak lehenetsiko dira.
  - NEIKER sariak bereziki baloratuko ditu planteamendu berritzaileak azaltzea, teknologia oinarri izatea eta aplikagarritasuna, baita epe laburrera ez bada ere.
  - Kategoria guztietan, aintzat hartuta zientzia eta teknologian genero-bereizketa dagoela, genero-berdintasuna sustatuko da.
- Epaimahaiak eman gabe utz ditzake sariak, aurkeztutako lanek/proiektuek gutxieneko kalitate-ezaugarriak betetzen ez dituztela iritzi gero.

### **VIII.- Jabetza intelektualaren eskubideak**

- Lanen ustiatze-eskubideen jabetzari dagokionez, III., IV. eta V. ataletan xedatutakoari jarraituko zaio.
- Saritutako lanak Creative Commons AITORTU - EZ KOMERTZIAL - OBRA ERATORRIRIK GABE lizentziapean zabalduko dira. Informazio gehiagorako, ikusi <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/>
- Lanak oinarri hauetan zedarritutako mugetatik kanpo hedatu nahi izanez gero, beharrezkoa izango da egilearen, edo egileen, baimena izatea.
- Lana sariketara aurkeztuta, parte-hartzaileek bermatzen dute ez dutela aurkezten inolako materialik hirugarrenen jabetza intelektual edo industrialaren eskubiderik urratzea dakarrenik. Elhuyarrek ez du bere gain hartuko egileek egindako hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren inolako eskubide-urratzerik, eta egileek Elhuyar kalterik gabe atxikiko dute hirugarrenen edozein erreklamazioaren aurrean, eta, bereziki, beren jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide-urratzearen aurrean. Elhuyarrek, orobat, ahalmena du oinarri hauek hausten dituzten edo hirugarrenen eskubideak hausten dituzten egileei emandako edozein sari atzera bueltatzea eskatzeko, Elhuyarri legozkiokeen kalte-galerei utzi gabe.
- Baldin eta epaimahaiak atzematen badu lanen batek hausten dituela hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak, lan hori automatikoki baztertuko da sariketarik, epaimahaiaren irizpide eskusiboz, eta lan horren edo horien egileak ez du inolako kalte-ordainik izango baztertze horregatik.
- Lanek ez diote eraso egin behar pertsona fisiko edo juridikoen jabetzari, osotasunari edo irudi onari.

### **IX.- Azken klausulak**

- Saritutako lanak gizarteratzean, nahitaez egin beharko da irabazitako sariaren edo bekaren aipamena.
- Antolatzaileek ez dute bere gain hartzen saritutako lanetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
- Materiala bidaltzean birusak edo bestelako arrazoiak direla eta arazorik gertatuko balitz, Elhuyar ez litzateke erantzule izango.
- Aurkeztutako lanen/proiektuen fitxategiak ez zaizkie itzuliko autoreei.
- Elhuyarko langileek ezingo dute parte hartu sariketa honetan.

- Oinarrietan jaso ez diren gai eta gertakariei dagokienez, Elhuyarrek izango du erabakitze eskubidea.
- Sariketa honetara aurkezteak esan nahi du oinarri hauek guztiak onartzen direla.

## X.- Argibideak

Sariketari buruzko argibideak Elhuyarri eska dakizkioke:

Elhuyar  
 Ana Galarraga Aiestaran  
 Zelai Haundi 3, Osinalde  
 20170 Usurbil (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943363040; luzapena: 210  
 cafelhuyarsariak@elhuyar.eus  
<http://cafelhuyarsariak.elhuyar.eus>

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua) ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu zuk emandako datu pertsonalak ELHUYAR FUNDAZIOAK tratatuko dituela xede hauekin: CAF-Elhuyar proiektuari eta Elhuyar taldearen ekitaldiei, produktuei eta proiektuei buruzko informazioa eta albisteak bidaltzea, eta CAF-Elhuyar proiektua dela eta interesdunekin harremanetan jartzea. Aurreikusitako xedeak betetzeko, datuak Elhuyar taldeko enpresei (Elhuyar Zubize SLU eta Eleka Ingeniaritza Linguistikoa SL), CAF-i eta, babesleei jakinarazi ahal izango zaizkie. Pertsona orok du eskubidea bere datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, datuen erabilera mugatzeko, aurka egiteko edo beste norabait eramateko. Horretarako, goian azaltzen den helbidera idatzi edo datuensegurtasuna@elhuyar.eus helbidera mezu bat bidali besterik ez da egin behar, baliatu nahi den eskubidea adierazi, eta NANaren kopia edo identifikatzeko balio duen beste dokumenturen baten kopia erantsi.

